



## Aimar Irigoienek irabazi du Adunan Gorostidi Harriaren I. Txapelketa

**SAIOA** ▶ Errezildarrak 11 jasoaldi egin zituen; Ostolaza bigarren izan zen, 8 jasoaldirekin

**OMENALDIA** ▶ Iñaki Gorostidi adunarrak oroigarria jaso zuen herritarren eskutik ▶ 6



Amaieran, Gorostidi bere oroigarriarekin eta Aimar Irigoien irabazlea. IBON AZPILIKUETA

### TOLOSALDEA ▶

## Uda ondoren hasiko dituzte AHTren lanak, txostena egin ostean

AHT Gelditu! Elkarlanak trenaren ibilbidea, arkaziak moldatuta eta hainbat datu esanguratsu aurkeztu ditu ▶ 5



N. GARZIA

**ANTTON IZAGIRRE** ▶ EAE-ANV-REN HAUTAGAIA

«Ez dut uste gure botoek balio gutxiago dutenik»

«Beste guztiek bezala» botoa eskatuko dutela azaldu du tolosarrak ▶ 4

**ceinpro**  
Diseinuareta kreazioahalmenean  
oinarritutako heziketa

• DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA  
IRAILPENA - 2. Kasurte / 2000 ordu  
SARRERA - LH1 - LH2 - EE I - edo HSAOL BATAKILERDIA gaitzuta

• ARTE GRAFIKODEN AURBEINPRIMAKETAN TEKNIKARIA  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA  
IRAILPENA - 2. Kasurte / 2000 ordu  
SARRERA - 2. DBE1 - LH1 - EE I - edo DBE4 gaitzuta

IBON AZPILIKUETA

IBON AZPILIKUETA  
20070522  
Diputazioa  
Tel: 943 210 8175  
Fax: 943 210 8175


**IRITZIA ▶ ENRIQUE TORQUEMADA ETA INAKI IRAZABALBEITIA (EB-ARALAR KOALIZIOA)**

## Etorkizunari begira, ezkerretik beti ere

**E**zker Batua-Aralar koalizioak Tolosaren etorkizuna eraikitzeko oinarriak sendotu nahi ditu udaletxean datozen lau urteotan egingo duen lanarekin. Zein da etorkizuna? Non daude horren oinarriak? Zeintzuk izango dira etorkizunaren jabeak? Dudarik ez, gaur egungo gazteak. Hori begira, horien beharrei begira, eraiki nahi dugu etorkizuneko Tolosa. Gazteak Tolosan errotzea behar dugu eta hori lortzen egongo da Ezker Batua-Aralar koalizioaren udal politikaren muina.

Horregatik esaten dugu Tolosar gazteak etxebizitza duina izateko eskubidea dutela, etxebizitza oinarriko eskubidea delako, ezin bestean. Erakunde publikoek herritarren etxebizitza-eskubidea bermatu egin behar dute. Horregatik

udalak, gainerako erakundeekin batera, etxebizitza-politika eraginkorrek bultzatu behar ditu, bai etxebizitza hutsak merkatura ateratzeko neurriak hartuta eta baita etxebizitza berrien eraikuntza sustatuta ere. Alabaina, udalak sustatutako etxebizitza berri horiek bi ezaugarri behar dituzte bete: babestutakoak eta alokairuzkoak izatea. Guztien % 70ak gutxienez errentaren araberako alokairuzkoak izan behar du, bertan bizi direnek dituzten irabazien arabera ordaintzen dutelarik. Jabetza publiko alokairuzko etxebizitza-parke bat osatzaren aldekoak gara.

Lana da Tolosan errotzeko gazteek behar duten beste osagaietako bat. Desindustrializazio-prozesu handia jasan du Tolosaldeak. Jarduera industriala ez da

jada erreferentzia ekonomikoa. Hori ez da jasangarria. Horrek ez du etorkizuneko ongizatea bermatzen. Tolosak enplegu zuzena eta ez-zuzena sortuko duen industria traktorea behar du. Udalak horrelako enpresa bat herrian kokatzeko baldintzak sortu behar ditu eta, gainera, nolako enpresa nahiko genukeen erabaki. Bestetik, ez dugu onartuko lurzoru industrialarekin espekulatzea.

Dena ez da lana. Tolosar gazteek eta ez horren gazteek herrian bertan aurkitu behar dute aisialdirako espazioa eta udalak horretan lagundu egin behar du, beti ere, gazteen autoantolaketa errespetatuz, behetik gorako eskema bati jarraituta.

Hiru ideia bukatzeko. Tolosa ez errealitate isolatua, eskualde bizi baten herri nagusia baizik. Horregatik, Tolosak hiri-

buru izate hori kontuan hartu behar du eta zerbitzu eta azpiegituren planifikazio-ka egiten denean tolosaldeko beharrei ere begiratu behar zaie.

Etorkizuneko tolosaldean euskara ikusten dugu gizarte-hizkuntza nagusi moduan. Pertsona eleanitzez osatutako etorkizuneko sozietate horretan euskara komunikazio-hizkuntza nagusia izan da, neurriak hartu behar dira orain: udaleko lan-jarduera zeharo euskaldun, alor sozio-ekonomikoan erabilera sustatu, hizkuntza-paisaia zainduz, ...

Udaleko atek herritarrei zabaldu behar zaizkie informazioa jasotzeko zein erabakiak hartzeko. Udaleko jardunean tolosarrek parte hartze zuzena izan dezaten baliabideak jar daitezten borroka egingo dugu, demokrazia ez baita lau urte behin botoa emanez pertsona-talde bati teke zuria ematea.

Horren alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.

### EGUNeko IRUDIak ▶



## EA Eren zerrenden aurkezpenak eta EA Jren mugikortasun plana

**Erredakzioa ▶** Areson (goian ezkerrean) EA Eren zerrenda aurkeztu dute; Joxepi Marzol da zerrendaburua, eta Julio Nieto, Ione Lozano, Ramon Algero, Jose Otermin, Arkaitz Nieto eta Luis Migel Nietok osatzen dute zerrenda. Berastegin (ezkerrean behean), hauek dira EA Eren zerrenda osatzen dutenak: Joxe Garaiburu, Olatz Etxeberria, Maite Amundarain, Jabier Mujika, Iñigo Belaunzarán, Ione Gorostazu, Ion

Zubillaga, Karlos Ugartemendia, Argiñe Ansa, Joseba Azpiroz, Joseba Koldo Urkizu eta Joxe Migel Urkizu. Tolosako EA Jren hautagaiek (eskubian), berriz, mugikortasunaren plana aurkeztu zuten atzo Usabalgo kiroldegian. «Mugikortasuna kontzeptu global bezala hartzen dugu eta oinezkoa da garrantzi gehien duena guretzat», zehaztu zuten jeltkideek. HITZA

### HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## MINUTU ERDIAN ▶

## EAK bere web orria aurkezten du

TOLOSA ▶ EAK web orria aurkezten du, «bere hautagaiak ezagutzeko, agendaz infomatzeko, eta batez ere herritarrekin harremana mantentzeko». [www.euskoalkartasuna.org](http://www.euskoalkartasuna.org) helbidean, [euskaHerria egitea](http://euskaHerria egitea) atalean sakatuz, Gipuzkoa barruan Tolosa herrira iris daiteke. Edo bestela, [www.euskalherriaegitea.org/tolosa](http://www.euskalherriaegitea.org/tolosa) helbidetik sar daiteke.

## Bonberenearen erabileraren salaketa

TOLOSA ▶ Bonbereneako etorkizuna nolakoa izango den azaldu zuten pasa den astean, eta horren harira, bertako arduradunek eskatu nahi diote Jokin Bildarratz Tolosako alkateari «ez dezala Bonberenea sartu lehia elektoralean, ez baita lehen aldia gertatzen dena; ez gara oraindik akordio batera iritsi inongo alderdi politikorekin».



Bonbereneako egoitza. HITZA

## EAEren afari herrikoia, hilaren 25ean

ZIZURKIL ▶ Zizurkilgo EAEren zerrendaren aurkezpena egingo dute Joxe Arregi plazan hilaren 25ean, 20:00etan. Ondoren, Adunako sagardotegi batean afari herrikoia antolatu dute. 25 euro ordaindu beharko dira txartela eskuratzeko, eta 15 euro langabetuek. Izena Zentroan eman daiteke hilaren 25eko eguerdia baino lehen.

## Elkarlanak AHTr buruzko jarreker eskatu ditu

TOLOSALDEA ▶ AHT Gelditu! Elkarlana (AHT proiektuak hurrengo urteetan izango duen garrantzia kontua hartuz) udal hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politikoei zuzendu zaie, hauek zehaztu dezaten zein den beraien jarrera honen aurrean. «Modu honetan herritarrek erabakia argiago izango dute bozkatzerako orduan».

## EKITALDIAK ▶

Ondorengoak dira alderdi politikoei gaurko antolatutako ekitaldiak udal hauteskundeetara begira:

## TOLOSA

**Gaur, 18:30.** EAJren hautagaiak hurrengo legealdian egingo dituzten ekitaldien aurreikuspena aurkeztuko dute Usabal kiroldegian.  
**Gaur, 20:00.** Beotibar pilotalekuan EAEren ekitaldi nazionala izango da.

## DATUAK ▶

## PP

**Alkategaiak.** PP da alderdi bakarra herri guztietan bere zerrendak aurkeztu dituen udal hauteskundeetarako. Hala ere, alkategai guztiak ez dira aurkeztu diren herrikoak, Tolosako izan ezik, bertan Angel Yañez tolosarra baita zerrendaburua. Azken honi elkartzasuna adierazteko helburuz, hain zuzen, CCOOko delegatua eta La Jaraka presidentea independente gisa aurkeztu dira Tolosako PPre zerrendan.

## PSE-EE

10 herritan. PSE-EEK Tolosaldeko eta Leitzaldeko 10 herritan aurkeztu ditu bere zerrendak. Hain zuzen ere, Alegia, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Ibarra, Ikaztegieta, Iruira, Tolosa, Villabona eta Zizurkilan aurkeztu ditu PSE-EEK zerrendak.

## GUTUN@K ▶

## EAJren bozka, gatazkaren luzakin!

Tolosako EAE-ANV alderdi politikoa maiatzaren 16an, asteazkena, bere hautagaien eta hainbat jarraitzaileen argazkia zuen kartelak jarri zituen Tolosako kaleetan, zeloz pegatuta txukun-txukun. Hurrengo goizean ez zegoen alerik Tolosako kaleetan, EAJk kentzea agindu baitzuen kale-garbitzaileei.

Denok dugu gaur egungo egoera politikoa berri, denok dakigu demokratikoak ez diren hauteskundeak aurrean gaudela eta horren aurrean horra zer egin duten EAKk eta alkateak: modu bidegabean

izoratu duten EAE-ANV gehiago izoratu; lau urteotan herri honek bozkatutakoa errespetatu beharrean, zinegotzien harrapaketa lotsagarria egin: EAJrentzat ere lege aberrante bat omen dena hitzez hitz bete; eta herri honek erabakitakoari lau urte luzez trufa eta iraina egin, 2.500 tolosarri eta beren ordezkari burla egin.

*Ley Organica 5/1985 Regimen Electoral General*-aren 182'2 artikulua bidez erraz konpon zitekeen zinegotzien postuak dagokionari itzultzea, baina ez dute nahi izan, 2 zinegotzi gehiago izan dituzte lau urtez lotsagabe, herri honen borondateari burla egin.

Dirua besterik ez duen alderdiak, hedabide guztietan

bere propaganda milioiak gastatuta (zerbaitetarako balio behar dute Voith-Gorostidi bezalako operazioak edota Irungo Ogasunean harrapatutakoak, ezta?) egin dezakeen alderdiak, kartel batzuk jartzeko adina justu-justu duen alderdiari zeloz pegatutako kartelak kendu dizkio. Herria garbi esango dute, jakina, beraiek hedabide eta buzoi guztiak bete ditzaketenean beren propaganda garestiaz eta kalea besterik geratzen ez zaien alderdi bidegabeki kolpaturari (Conde-Pumpido: «Es posible que nos hayamos pasado, pero ha colado») arnasa hartzen ere ez utzita.

Oso garrantzitsua da egoera honetan EAE-ANVri botoa ematea, bakea eta Euskal He-

rriaeren eskubideak baititugu jokoan, aukera historikoa da lurraldetasuna eta erabakitze eskubidea lortzeko bidean, eta ezin dugu oraingoan hutsik egin, urte luzeetako sufrimendua daukagu jokoan.

Kartelak jarri egingo ditugu eta hauteskundeak pasatukoan, baita kendu ere. Gure konpromisoa da jarri eta kentzea. Tolosako herritarrei, orohar, eta gure kartelak enbarazo egin diezaieketen merkatari, ostalari eta abarri gure egoera uler dezaten eskatzen diegu: ez kendu bidegabeki tratatzen dituztenen kartelak. Eskerririk asko.

AITOR IZTUETA, JOSUNE AGIRREZABALA, IBAN ORTIZ ETA IÑAKI ELDUJIAEN (TOLOSAKO EZKER ABERTZALEA) ▶ TOLOSA

## BI HITZETAN ▶ JON MIRANDA (TXOLARRE IRRATIKO KOORDINATZAILEA)

## «Herritarren beharrak asetzeko ahalegin handiagoa egin behar da»

**Asier Imaz ▶** Txolarre Irratiak sei urte eta erdi egin ditu dagoeneko sortu zenetik, eta orduan Tolosaldeko irratia da eta eskualdeko berriak zabaltzen ditu egunero egunero. Jon Miranda irundarra ia proiektuaren sorreratik da bertako koordinatzailea.

**Zer-nolako balorazioa egiten duzu Tolosako Udalaren azken lau urteotako agintealdiaz?**

Tolosaldearen ikuspegi osoa lantzen dugu guk irratian, baina badakigu Tolosak eskualde buru lanak egiten dituela eta bertako Udalak erabakitzen dituenak, eragina duela Tolosalde osoan. Tolosaren irudia zabaltzeko ahalegin garrantzitsua egin dute, baino oraindik

ere, gazteek etxebizitza gabe jarraitzen dute eta eskualdean bertan lanpostu bat lortzeko zailtasunak dituzte. Proiektu handiekin batera, herritarren oinarriko beharrak asetzeko ahalegin handiagoa egin beharko litzateke.

**Oro har, zer eskatuko zenioke hurrengo Udalarari?**

Demokratikoki osatzea. Sentibillitate ezberdinetako jarrekerak ordezkatuta egotea Udalaren. Horrekin batera, Tolosako Udalak landu dezala, eskualde osoaren ikuspegi integrala, bateratua. Ez bakarrik Tolosa, baizik eta Tolosaldea erreferente bihurtu dadin Gipuzkoan eta baita Euskal Herri osoan ere.

**Zure esparrutik, zer nabar-**



I. GARCIA

**mendu nahiko zenioke Udalarari?**

Tolosaldeko euskarazko esparru komunikatiboa landu dezatela. Esparru hori osatua

dago dagoeneko, baditugu irratia, egunkaria, telebista eta aldizkaria. Elkarlana exijitzen zaigu komunikabideoi. Txolarre Irratiak, badaki eskualdeko euskarazko hedabideak erreferente bihurtu daitezten, hori dela bidea. Instituzioek ere, agertu behar dute horretarako borondatea, besteak beste, euskarazko komunikabideak, bereizkeriarik gabe, diruz lagunduz.

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Hau da hauteskundearen harira eztabaidarako gure webgunean proposatzen dizugun gaia: «Hilaren 27an izango dira Udala eta Batzar orokorretarako Hauteskundeak. Zergatik bozkatzen duzu? Zergatik ez duzu bozkatzen?» ▶



ANTTON IZAGIRRE ▶ EAE-REN HAUTAGAIA TOLOSAKO ALKATETZARAKO

# «Ez dugu pentsatzen ezta sinisten ere gure botoek balio gutxiago dutenik»

Antton Izagirre EAEn Tolosako alkatetzarako hautagaia da eta Tolosan ilegalizatua izan arren beste guztiek bezala botoa eskatuko dutela azaldu du

NAIARA GARZIA

Antton Izagirrek (Tolosa, 1954) 32 urte inguru daramatza irakaskuntzaren munduan irakasle bezala lanean. Honetaz gain, urte asko daramatza politikan eta 4 urtez Tolosako alkateta izan zen. Aurtengo hauteskundeetan EAEn Tolosako alkatetzarako hautagaia da.

## Zein da 4 urte hauetaz egiten duzuen balorazioa?

Gure ustez 4 urte hauetan bai Euskal Herrian eta bai Tolosa aldean eman da Frankismoaz geroztik eman den egoerarik ez legezkoena edo antidemokratikoa. Biztanlegoaren kopuru handi bat ordezkaritza zuzenik gabe gelditu da, eta guk, ordezkaririk garen heinean, ez dugu aukerarik izan Udalean lan egiteko normaltasun osoz. Bestalde, guk behin eta berriz 4 urte hauetan salatu duguna izan da Udalak irudizko gestioa egin duela, herritarrek kontutan hartu gabe eta egin duten gestioa gure ustez kaxkarra baino gehiago, ezkorra izan da. Alde batetik euskalgintzak atzera egin duela, eta bestalde etxebizitza politikan egin den politika erakin etxeek Tolosarako diseinatu duten politika izan delako. Larria iruditzen zaigu hau egitea, baina larriagoa iruditzen zaigu kudeaketa hori guztia Udaletik kanpo egitea, Voith-Gorostidiren kasuan udal teknikarien informea kontra izanik aurrera egin baitute. Hori udaletxean egin da, baina gauza bera errepikatu da Aldundian. Eta honi erantsiaz, aurreratuta zeuden beste egitasmoak, etxebizitza sozialak, alokairuzkoak edo merkeagoak egiteko zeuden eremuak, alegia, horiek ez dira ukitu ere egin eta bere horretan utzi dira, lehendabizi etxebizitza pribatuari irteera emateko. Azkenik, gizarie zerbitzuetan eman diren atzera pausoak azpimarratuko genituzke. Badago EAEn pentsakeran eta kudeatzeko moduan zerbitzuak pribatizatzearen aldeko joera eta joera horren eraginez Tolosan oso ongi funtzionatzen zuen gerontologiko bat itxi egin zuten diputazioak Tolosako Udalaren inplikazioarekin. Orain azpiegitura handi bat diseinatu dute, baina hori



I. TERRADILLOS

## EAE-REN GESTIOA

«4 urte hauetan salatu duguna izan da Udalak irudizko gestioa egin duela, herritarrek kontutan hartu gabe»

guztiaz ere esku pribatuetan uzteko asmoarekin.

## Zer da zuen alderdiak eskaintzen duena?

Lehendabiziko guretzat da eskaera edo exijentzia, hau da, Udalak herri borondatearen arabera eratu daitezela. Guk uste dugu jokoan dagoela prozesu politikoarekin jarraitzea, eta hori izango da gure apustua. Botoa eman nahi dugutenei esaten diegu EAEn botoa emateak suposatzen duela prozesu politiko hori ziurtatzea edo bermatzea. Gainera, edozein kasutan gure herri programan agertzen diren ardatz nagusiak defendatuko ditugu: euskara, alokairuzko etxebizitza eta etxebizitza soziala, gestio publikoa gizarie zerbitzuetan, euskal kulturaren aldeko eta euskal komunikabideen aldeko apustua, industria zoru berriak aurkitzearen aldekoa,

## AHT

«AHT ez da inondik inora konponbidea Euskal Herriak dituen azpiegitura beharrei erantzuna emateko»

bertako produktuak zuzenean komertzializatzearen aldekoa, dendarari txikien defentsan eta merkatalgune handien aurkako, industriaren deslokalizazioa, baserriaren defentsa... horiek dira gure ardatzak.

## Zergatik uste duzu EAE Tolosan ilegalizatu dutela eta beste herri batzuetan ez?

Hor balorazio politiko bat egon da. Guk uste dugu Tolosan eta Ibarren etxebizitza politikaren inguruan interes partidista handiak daudela eta konbenzituta gaude ilegalizazio hauek ezin zirela egin EAEn benetako jarrera tinko bat gabe. Gure ustez ezinbesteko kolaborazioa egon da PSOE eta EAEn artean, nahiz eta agerian gauza ezberdinak esan, eta batik bat gobernutik. Kriterio objektiborik ez dago egin dutena egiteko. Nola konponduko da hau? Gure ustez egoe-

## ETXEBIZITZA

«Gaur egun hemen etxebizitza aberasteko bitarteko bezala ikusten da eta ez oinarritzko eskubide bezala»

ra hau konpontzeko modua akordio politiko horretan aurrera egitea da.

## Baliogabeko botoa eskatuko duzue?

Guk eskatuko dugu botoa beste guztiek bezala. Kontua da zerranda baliogabetzean botoak ere baliogabetu egingo dituztela. Gu eskuz esku eta etxez etxe joango gara besteen balio berbera duten botoak eskaintzera, eta ez dugu pentsatzen ezta sinisten gure botoak balio gutxiago dutenik.

## Zer esanahi dute zuentzat boto horiek?

Guretzat ia-ia miresgarria da. Herritarrek esatea, jakinarene gainean egonda ez dituztela eskubide berak izango, «hauen ideiekin identifikatzen gara, eta Euskal Herria eraiki nahi dugu pertsona hauen il-dotik». Hori sekulakoa da eta ez da beste inon gertatzen.

Nire ustez, botoa ez zaio ematen eserleku bati, balore batzuei baizik. Horrek fede gehiago ematen dit, horrelako botoek balio erantsi bat dutelako.

## Zaborraren arazoari zer irtenbide ikusten diozu?

Oso arazo konplexua da. Baina nire ustez errausketaren eztabaida planteatu denean ez da benetako irtenbide bat topatzeko izan, hori negozio bilakatzeko helburuarekin, baizik, nahiz eta orain merkea dena gero garesti atera daitekeen: kutsadura gehiago, gaixotasunak... beraz ez dugu Tolosan nahi, ezta Zubietan ere. Errausgailuaren aurkako koordinakundeak ematen dituen irtenbideak jorratu egin beharko lirake. Beste aukera bat bilketa selektiboarena izan daiteke. Hemen oso boluntarioa da, baina derrigorrezko bihurtu dezakegu.

## AHTren gaia nola ikusten duzue?

Hasieratik kontrako jarrera izan dugu, badaukalako alternatiba bat. Alternatiba ez da abiadura, alternatiba da zenbat jende, zenbat tokietara eta zenbat merkantzia bideratzeko gai garen, errepideetatik zenbat kamioi kentzeko gai izango garen, alegia, eta honi tren soziala deitzen diogu. Gainera Tolosa aldetik begiratura kaltetua izango da. Autobiaren parean joango da, inpaktu handia lortuko du, zarata, kutsadura, lur mugimendu handiak... AHT ez da inondik inora konponbidea Euskal Herriak dituen azpiegitura beharrei erantzuna emateko. Tolosatik pasa egingo da eta utziko diguna da zarata, kutsadura, kalte ekologikoa...

## Etxebizitzarenak, zer konponbide dauka?

Tolosak daukan lurzorua okupatuta dago, maldetara jo gabe eta etxebizitza berriak egiteko aukera oso mugatua da. Laskorain goikoa eskaintza oso aproposa egin daiteke dauden beharrentzat, ez guztientzat, etxebizitza sozialen politika bakarrik ez baita irtenbidea. Alokairuzko etxebizitzaren alde gaude, Europan ematen da, eta hemen ez da ematen etxebizitzena negozio bat delako. Etxebizitza huts asko daude, eta hauek gestionatzea ezinbestekoa da. Bestalde, mendik aldean etxebizitzak egitea arrisksua iruditzen zaigu, herriaren birrikak direnak gero eta gutxiago baitaude. Gure ustez maldak eta auzoak errespertatu beharko lirake. Landa auzoetan etxebizitzak ez lirake besterik gabe egin behar; bertakoentzat bai, baina ez edozein lekutan. Gaur egun hemen etxebizitza aberasteko bitarteko bezala ikusten da eta ez oinarritzko eskubide bezala.



TOLOSA ▶ AHT

# Proiektuaren txostena eginik, uda ondoren hasiko dituzte obrak

AHT Gelditu! Elkarlanak aurkeztu zuen, trenaren ibilbidea, argazkiak moldatuta eta hainbat datu esanguratsu bilduz



David Miangolarra, Joxe Imaz eta Olatz Amiano, mahaiain. Atzean, babesa eskaini zuten eragileak. A. IMAZ

**ERREDAKZIOA**

Lehenengo astean, Tolosako Kultur Etxean AHTri buruzko txosten informatibo bat aurkeztu zuen AHT Gelditu! Elkarlanak. Bertan, Madrilgo eta Gasteizko gobernuen azken adierazpenen arabera, Gipuzkoan AHT proiektuak lanak udara ondoren hasiko dituztela aipatu zuten, «baina gure agintariekin ez dute ezer esaten obra honi buruz, jakin arren Euskal Herrian inoiz egin den obrarik handienetakoa izango dela, eta Tolosaldean ere eragin handia izango duela».

Aurkeztutako txosten osatuari bere babesa eman dioten erakunde ezberdinek ordea, proiektuari buruzko ahalik eta informazio gehien edukitu eta zabaldu nahi dute, eta era berean «gure jarrera kritikoa agertu nahi dugu, honako arrazoiengatik: hasteko, AHTk kalte ekologiko garrantzitsuak eragingo dituelako: lurra erartze, artifizializazioa, zarata, eragin bisuala, kalte hidrokologikoak, energia kontsumoaren gorakada...» azpimarratu zituzten.

Bestetik, eragin sozialei dagokienez, AHTk hiriburu handien aldeko gizarde eredu bat bultzatzen duelako, Tolosaldea bezalako bailarak kaltetuz, eta biztanleria eta jardueren kontzentrazioa bultzatuz. «Gainera, gure ustez ez du garraioa-

ren arazoa konponduko eta garestia eta elitista izango da».

2007an egindako inkesta batek erakusten du «jendeak ez duela informaziorik». Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren txostenetan agertzen da, Euskal Herrian jende gehiena bailara barruan edo bailara artean mugitzen dela lanera joateko, ikasteko, erosketetarako, edo aisialdirako. Hiriburuetara joan behar duten ikasleek ere «zaila lukete: txartelaren prezioarengatik, 18 eta 25 euro bi-

tartekoa izan daitekeelako, eta Tolosan ez delako geltokirik egongo».

**Tolosaldean eragina**

Tolosaldea bezalako bailara malkartsu batean horrelako tren bat sartzeak, «suposatzen du sekulako lanak egitea»; tunelak, tuneletatik ateratako lurrazterako zabortegiak, desmonteak... Besteak beste, trenbidea bera Tolosaldeko mendiguneetan 50-100 metroko zabalera duen plataforma batean doa. «Monteskukoa bezalako tunelak egiterakoan, berriz, (1,5 kilometro), handik ateratako lurra nonbaiten utzi behar da, eta arriskuan jartzen dira lur azpiko urak».

Paisaiari dagokionez, Euskal Yaren Ingurugiro Inpaktuaren Azterketa txostenak Ikaztegieta-Aldaba eta Tolosa (Bentaundi-San Esteban) kalte handiak jasango dituzten lekuen artean aipatzen ditu. «AHTk lur asko kontsumituko du, nekazaritza lurra izanik kaltetuenak. Berriz ere baseritarrek etxea, eta bizimodua galduko dituzte».

**Ikuspegi kritikoa**

Txostenek kritika hauek guztiak zehaztu eta sakontzen ditu, datuak emanez, tren nondik pasako den azalduz, lan honetarako propio eginiko mapa eta fotomuntaiak originalekin ilus-

**DATU BATZUK ▶**

- %42. AHTri buruzko informazio gutxi duela dio.
- %80. Ez daki bartelaren prezioari buruzko ezer.
- %76. Ez daki erabiltzaile kopuruaren aurreikuspenaz.
- %58. Ez daki hiriburuen joan-etorriaz.
- %35. Ez daki bere herritik pasako denik.
- %42. Ez luke AHT inoiz erabiliko.
- %2. Astero erabiliko luke.
- %0,3. Egutero erabiliko lukete tren.
- %49. Alegia, Tolosa, Andoain zonaldean ez zutela sekula erabiliko erantzun zuten. Tolosaldeko inork ez du erantzun AHT astero edo egutero erabiliko lukeela.
- 20. Euro inguruko prezioa izango duela aurreikusten da.

PILOTA ▶

## Bidarian eskualdeko kadeteak ariko dira gaur

Hilabete bat baino gutxiago falta da HITZA Pilota Txapelketa bukatzeko

**NEREA URBIZU**

Gaur, HITZA Pilota Txapelketa hilabete falta den honetan, kadeteen partidak izango dira Bidarian, 19:00etatik aurrera: Zazpi-Iturririko Olaetxea Behar Zanako Karrera-aren aurka ariko da 19:00etatik aurrera. Bigarrenik, Aurrera-Saiaz-Berastegiko Barandiaran, Madariagaren aurka ariko da.

Seniorrek bihar Beotibarren jokatu dute 20:30ean. Kasu honetan ez da eskualdekorik ariko, baina maila oneko norgehiagoka izango da.

**Asteburuko emaitzak**

Hauek izan dira emaitzak: benjaminetan Aurrera-Saiazkoak gailendu ziren altxotarren kontra. Aurrera-Saiazkoek beste partida ere irabazi zuten.

Alebinen artean, lehenengoan, Aurrera-Saiazkoek irabazi zuten, bigarrenean, Alegiak, eta hirugarrenean, Aurrera-Saiazek. Infantilak Adunan aritu ziren, eta Aurrera-Saiazek bi garaipen lortu zituen. Alegia bat irabazteko zorian geratu zen. Jubeniletan, Altxok irabazi zuten, Ibaguren-Artola bikoteak, hain zuzen, Belateren aurka (22-12).

22 urte azpikoen partidari, Aurrera-Saiaz-Berastegiko galdu egin zuen (Mendizabal-Senperena 12; Idoate-Mitxelena 22). Elurbe-Lopez seniorrek ere galdu egin zuten, juxtagatik: 22-20.

## ADUNA ▶ GOROSTIDI HARRIAREN I. TXAPELKETA



**Irabazlearen jasoaldia.** Aimar Irigoienek erakustaldia eman zuen 185 kiloko Gorostidi harriarekin. 11 jasoaldi burutu zituen bost minutuko denboran. Helduleku baka-rraren zailtasuna, bere arerioek baino gu-xtiago nabaritu zuen errezildarrak, eta errit-imo biziarekin ekin zion lanari. Adunako frontoia leporaino bete zen igandean.

## Irigoien irten zen nagusi

Iñaki Gorostidi omendu zuten bere herriko frontoian, ondoren 5 harri-jasotzaile aritu ziren lehian, orain dela 25 urte adunarrak jasotako harriarekin



Sari banaketan bost harri-jasotzaileak. Erdian berriz Iñaki Gorostidi, herritarren eskutik jasotako oroigarriarekin. IBON AZPILIKUETA

### ASIER IMAZ

Aimar Irigoienek irabazi zuen Gorostidi harriarekin, igandean Adunan burutu zen lehiaketa. Bost harri-jasotzailearen lana ikusteaz gain, herriko frontoia bete zuten ikusleek,

Gorostidi omendu zuten, honek orain dela 25 urte jaso zuen 185 kiloko zilindro zaharra esku bakar batekin.

Harriak helduleku bakarra dauka, harri-jasotzaileari lanak gehitzen dizkio ezaugarri honek. Hala eta guztiz ere, bost

minutuko lana bikain bete zuen Aimar Irigoien errezildarrak, 11 jasoaldirekin. Gerturatu zirenak harriturik utzi zituen 21 urte besterik ez dituen gazteak. Zalantzari gabe Irigoien izan zen onena, jasoaldiez gain, beste inork baino erritmo

handiago ibili zuen, sekulako sasoa erakutsiaz. «Beldur pika bat» bazuela aitortu zuen amaieran, atzetik Goenatxo eta Ostolatzak bere emaitza jakinda ekingo ziotelako euren lanari. Bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen ordea

Ostolatzak, 8 jasoaldirekin. Hirugarren berriz Goenatxo geratu zen, 6 jasoaldirekin. Hauen atzetik, aspaldian lehiaketetik kanpo zebilen Mieltxo Saralegi leitzarra geratu zen. Bost jasoaldi eman zizkion harriari, horietaz gain, bi ustel ere egin zituen.

Azkena Izeta III.a geratu zen, baina 100 kilo azpitik pisatu eta Gorostidi harria jasotzen zuen kirolariarentzat ere baze- goen saria igandean, eta hori aiararentzat izan zen, ez baitzen baldintza horretako beste harri-jasotzailearik agertu. Izeta III.ak bi aldiz berdindu zuen harria bizkarrean, eta ustel bat ere izan zuen.

### Gorostidiri omenaldia

Iñaki Gorostidiri adunarrari omenaldi beroa eskaini zioten frontoira gerturatu ziren herritarrek. Horretaz gain, oroigarri bat eman zioten harri-jasotzaile ohiari, errekoraren 25. urteurrenaren sari bezala. Urte- muga ospatzeko antolatuta zen igandean lehiaketa eta erant- zun bikaina eman zuen jende- ak, frontoia leporaino beteaz.

### SAILKAPENA ▶

1. Irigoien	11 jasoaldi
2. Ostolatz	8 jasoaldi
3. Goenatxo	6 jasoaldi
4. Saralegi	5 jasoaldi
5. Izeta III	2 jasoaldi

### IBARRA ▶ UDALA

## Chelo Romeok hiru udal langileri leporatu die «jazarpena salatzeako», lankideak «manipulatu» izana

### A. IMAZ

Ibarrako udal langileek elkarretaratzea egin zuten joan den astean, «idazkariaren konplizitateaz, langile batzuekiko udal gobernuaren jazarpena eta utzikeria» salatzeako. Chelo Romeo alkateak salaketari erantzuteko prentsa ohar bat kale- ratu du, «eraso eta manipula- zioa Ibarrako alkatetzari» salatuz. Akusazioaren aurrean, «inolako jazarpen politikarik»

ez dela egon esan du alkateak. «Aitzitik, korporazioak babesa eman die eskaera tekniko eta pertsonalei. Haien eskura jar- rriz ordenagailuak, obra ibil- gailuak, kamioiak eta bestela- koak, eurek eskatuta eta beren lana hobetzeko».

2006. urtean langileen «me- sederako» Udalhitz martxan jarri izana aipatu du ondoren Chelo Romeok. Langile batzuk besteak manipulatu izana ere salatzen du alkatetzak egute-

giaren kontura; «2007an langi- leek aurkeztutako lan egute- giak onartu ziren. Lan egutegi hori, zati handi batean Dizi- plina eta Kontroleko ardu- radunarena, Kiroldegiko ge- rentearena (aurrekoaren sen- rra) eta sindikatuko ordezkari- arena. Egutegi horietan hiru opor egun gehiago jasotzen zi-

ren, lantaldeko besteekin alde- ratuz. Desberdintze hori ez zen adostu langileen asanbladan eta ezta udalbatzarekin ere».

Ondorioz, «nahiz eta Korpo- razioak lan baldintzak hobe- zteko ahaleginak egin» eta hiru langile horien lan egutegiak onartu ez direnez, «ordezkari- tza sindikalak Korporazioa akusatu du eraso, jazarpen, utzikeria eta bidegabekeria le- poratuz». Alkatearen ustez, «jarrera hori ez da arrazoizko

ez justifikagarria, edozein ikuspuntu erabiltzen dela ere». Hiru pertsona hauei lepora- tzen die, «udal langileenak bai- no opor egun gehiago izatea, honen berri udal langileen ba- tzarrari eman gabe eta Udalba- tzarekin negoziatu gabe, bere lankideen zati bati jazarpena salatzen duen idatzia sinatu dezaten, eta era larrian nik or- dezkatzen dudan alderdiaren, Udal Gobernuaren eta Alkate- tza honen izena zikintzea».

Langileek gaia prentsara eraman izana «justifikazina eta neurritz kanpokoa» dela esan du Chelo Romeok. «Aku- sazioak ez baitatoz bat erreali- tatearekin».

GUTUN@K ▶

Txirrita, gogoan

Egun hauetan betetzen dira 31 urte Txirrita desagerrarazi, torturatu eta erail zutenetik, Guardia Zibilaren eskutik Etxalarako mendietan.

Lehenengo urtean, urte luzeetako eta Txirrita eta bera bezalako asko eta askok aurrera eramandako Euskal Herriaren defentsa eta eraikuntza borroka, prozesu demokratikoaren atarria ekarri gintuela esaten genuen, baina badirudi orain 30 urte bezala alderdi batzuek ezeko borobila ematen diotela demokraziari.

Ezinezko zaigu gaur egun Euskal Herrian gertatzen dena,

iraganari begiratu gabe uler-tzea. Duela 30 urte ere izan zen akordio bat ixteko aukera, herritarrek kaleak konponbidearen aldeko aldarrikapenez bete zituztenean, baina orduan ere PSOEek eta PNVk eman zioten ezetza herritarrek eskatzen zuten demokraziari.

Duela 30 urte aldaketa politikoa eman ez izanak, gaur arte luzatu du gatazka politikoa. Lata izan da herri honek bizitako denbora tarte honetan: atxiloketa masiboak, tortura sistematikoak, milaka euskaldunen espetxeratzeak, guda zikina, hiltzera tiro egiteko politika, sakabanaketa politika, ilegalizazio politikak, mobilizazioetako kargen ondorioz hildako eta zauritutakoak, depor-

tazioa, entrega eta extradizioak... finean errepresioaren hatzapar beltzak izan ditugu behin eta berriro, inposaketa eta ukazioaren tresna. Demokrazia eza agerikoa izan da eta da gaur egun ere.

Baina 30 urte hauetan herri honek bere askatasunaren aldeko ibilbidea egiten jarraitu du. Bereziki herri mugimendua eta ezker abertzalearen borroka bidez urrats berriak eman, aukera berriak irekitzeko tenorea irekiz.

Eta une honetan aldaketa politikorako aukera irekia du Euskal Herriak, borroka ibilbide luzeari esker eta bereziki ezker abertzalearen ekimen eta proposamen politikorako gaitasunari esker. Zentzu ho-

netan, ibilbide honetan, amnistia aldeko borroka ere erabakiorra izan da urte guzti hauetan.

Iragan hurbilari begiratu nahi diogu, Euskal Herrian aukera berriez batera une honetan, iraganeko akatsak errepikatu ez daitezen eta betirako konponbidea oinarri sendo eta benetakoen gainean eraikia izan dadin premiazkoa uler-tzen dugulako.

Duela 30 urte, Amnistia gehiengoaren eskaera bazen ere, milaka eta milaka herritarren nahia era askotan adierazia izan bazen ere, bizkarra eman zitzaiezen herritarren borondate eta eskubideei. Itxurazko aldaketek, zarpaketa iraunarazteko tresneria man-

tenzentz zuten oinarrian eta demokrazia ez zen iritsi Euskal Herria.

Arduragabekeria horrek, belaunaldi berriak gatazkan bizitzera behartu ditu eta gaur 30 urte dituzten gazteek konfrontaziorik bortitzenak eta eskubide urraketa basatienak ezagutu dituzte.

Amnistia lege izendatu zuten hori, ez zuen zer ikusirik Euskal Herriak gehiengo aldarrikatzen zuenarekin eta irtenbide pertsonalen itzalpean ezkutatu nahi izan zuten Amnistia biltzen duen zentzu: errepresaliatuak izan daitezuen arazo politikoa eman beharreko soluzioa.

MIKEL ZABALA (AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA) ▶ TOLOSA

LEITZA ▶

Finalerako sailkatzea lortu du Jon Rekondok

Mugertza II.aren aurka lehiatuko da, 23 urtez azpikoen txapela eskuratzeko

ERREDAKZIOA

Urrezko Aizkorako finalerdiak jokatu zituzten herenegun Leitzan. Honen baitan, 23 urtez azpikoen bigarren finalerdia ere jokatu zen. Bertan, Jon Rekondo eta Aitzol Atutxa neurtu ziren, eta etxekoak irabazi zuten, hau da, Rekondok.

Hala eta guztiz ere, lehia estua izan zen, eta Rekondok garaipena erdiesteko izerdi asko bota behar izan zuen. Atutxak ere lan ona egin zuen. Egur guztiak mozteko 11 minutu eta 28 segundo behar izan zituen leitzarrak, eta 12 minutu eta 30 segundo behar izan zituen Atutxak. Jende ugari bildu zen Amazbal pilotalekuan etxeko aizkolaria animatzeko. Asteburukoaren ondoren, Mugertza II.aren aurka jokatu du finala Rekondok.

Lehen aipatu bezala, Urrezko Aizkorako finalerdia ere jokatu zen igandean Leitzan. Hala, lehendabiziko txartela Joxe Mari Olasagastik eskuratu zuen. Urrezko harri-jasotzaile lehiaketan berri, Izeta III.ak eta Eizmendik finalerdietarako sailkatzea lortu zuten.

LEITZA ▶ PILOTA

Buruz buruko Txapelketako finalean da Abel Barriola

Ekainaren 10ean izango da azken partida, Atano III.ean; Olaizola II.a edo Gonzalez izango du aurkari leitzarrak



Aimir Olaizola izan daiteke Barriolaren finaleko aurkaria. M. SOROA

ERREDAKZIOA

Finalerako txartela irabazi zuen larunbatean Abel Barriolak. Partida bikaina egin ondoren 22-11 irabazi zion leitzarrak Patxi Eugiri. Eibarko Astelenako eserleku guztiak bete ziren finalerdietako norgehiagoka ikusteko.

Partidaren hasieran Eugik aurre hartu zion Leitzako atze-

lariari, 1-0. Dena den, hurrengo tantoetan zaila jarri zion Aigoizkoari. Denera, zortzi tanto egin zizkion sakez. Gainontzeok ere kostata erantzun zituen, eta ezin izan zion buelta eman partidari.

Gogor borrokatu zen Patxi Eugi, eta amaierara arte ez zuen amore eman.

Galarza V., Xala, Peñagarikano, Martinez Irujo, eta orain,

DATUAK ▶

- Azken emaitza.** Barriolak 22, Eugik 11.
- Pilotakadak.** 244.
- Iraupena.** 48 minutu eta 43 segundo.
- Jokuaren iraupen erreala.** 14 minutu eta 30 segundo.
- Markagailua.** 1-0, 1-1, 3-11, 3-14, 9-14, 11-18 eta 11-22.
- Sakez.** Eugik bat eta Barriolak zortzi.
- Bi paretaz.** Eugik bat eta Barriolak hiru.
- Airez.** Eugik bat.
- Atzean.** Eugik bost, eta beste horrenbeste egin zituen Barriolak.
- Galdutakoak.** Eugik bost eta Barriolak bi.

Eugiri irabazi ondoren Buruz buruko Txapelketako finalera iritsi da Leitzako atzelaria. Azken partida ekainaren 10ean izango da, Atano III.ean. Bere aurkaria joan den urteko irabazlea izan zen Olaizola II.a edo Gonzalez izan daiteke. Barriolak larunbatean esan zuenean, finalera begira, ongi aurkitzen da, sasioan, baita eskue-tatik ere.

KULTURA ▶

Loatzo musika eskolako matrikulazioa

Loatzo musika eskolara izena emateko epea hainbat herritan zabaldu dituzte. Esateraz, Alegian, udaletxean izango da aukera gaur (648 102802); Iruran, gaur eta bihar (648 102798); gaur eta bihar Villabonan 943694549.

EKONOMIA ▶

Grafikagintzako langileak mobilizazioetan

Grafikagintzako Gipuzkoako hitzarmena sinatzeko negoziaketetan hasi dira sindikatuetak eta Adegik. Hauek ez dira akordio batera iritsi oraindik. Negoziazio mahaian dauden hiru sindikatuek deituta, ELA, LAB, CCOO, mobilizazioetan hasi dira sindikatu hauetako delegatuak.

iragarki laburrak ▶

**LANA**  
Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Telefono zenbakia: 943 69 19 33.  
**Mantenu langileak.** Mantenu langileak behar dira udalteeetarako. 943 44 48 66.  
**Laborategietako langileak.** Laborategietako lengileak, garbiketara, lanpostu libreak. 699 13 45 86.

**SALGAI**  
Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Ebera entregatzen da. 615 75 57 62.

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Bedaio.** Bedaioiko I. Mendi Marba izango da ekainaren 10ean, 07:30ean frontoitik abiatuta (6-8 ordu Bedaio inguruan Artubi igoz). Izen-ematea, www.bedaio.com edo irteera baino lehen egin daiteke. Izen-ematea: 5 eurotan.

**Ibarra.** Pakistani buruzko II. Kulturarteko jardunaldien barruan, te eta gozoki tipikoen dastaketa Ibarra kultur etxean 19:00etan, Baltistani buruzko erakusketaren irekieran. Txema Camara Felix Inurrategi-Baltistan fundazioaren lehendakaria izango da.

**Tolosa.** Pakistani buruzko jardunaldiak amaitzeko, larunbatean afaria eta *Al filo de lo imposible* dokumentala izango da Oargi elkarteak 21:00etatik aurrera. Izen-ematea, 660 410548 telefonoan 12 eurotan.

**Tolosa.** Tolargik jakinarazi duenez, San Frantzisko kaleko 15ean, argi mozketa izango da 8:30etik 10:30era.

**Villabona.** Behar-Zana kirol elkarteak bere festa izango du ekainaren 2an. Afarirako eta danborradarako izen-ematea zabalik dago. Danborradako entsegua maiatzaren 31n, 19:30etik aurrera izango da elkartean bertan.

**Zuzurkil.** *Automotibazioa* hitzaldia adinekoentzat 17:00etan Atxulondo kultur etxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Irurtzun. Mutilloa, A. San Martin. 112.  
 Tolosa. Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

**IRRATIA**

**Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00. Eguraldia Joxe Landarekin.  
 11:15-13:00. Hauteskundeak: 11:15: EAren alkatezarako hautagai Bakarbo Tejeria; 11:45: Villabonako EAren alkatezarako hautagai Maikabel Arrieta; 12:15: Tolosako EAren alkatezarako hautagai, Antton Izagirre.  
 13:00: Info 7 albisteak.  
 13:30-14:00: Lehiaketa, disko eskainia eta agenda.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# 40 urteren ondoren, bizirik

**TOLOSA ▶** Laskorain ikastolaren 40. urteurrena ospatzeko afaria antolatu zuten larunbatean ikasle ohiekin ; 300 lagun inguru elkartu ziren, «giro ederrean»



300 lagun baino gehiago bildu ziren Ferialekuan antolaturiko afarian. HITZA

**ERREDAKZIOA**

**A**tzera begirada bat, etorkizuna ahaztu gabe. Horixe egin zuten, larunbat gauean, Laskorain ikastolakoek, ekimen polit baten bitartez. Ikastolaren 40. urteurrena ospatzeko ikasle ohiak Ferialekuan bildu ziren afaltzeko. Bertan 300 lagunetik gora bildu ziren eta «giro ederrean» igaro zuten gaua, antolatzaileek jakitera eman dutenez.

«Batxilergoko ikasleek txu-



Giro «ederra» sortu zen ondoren ere. HITZA

kun egin zuten lana» eta afal ondoren Unsain anaiak taldearekin dantza ugari egin zuten bertaratutakoek, festa giroa gaueko ordutxietara arte luzatu zelarik.

Urteurrenaren ospakizun ekitaldiek ez dute etenik eta larunbateko afariaren ostean, Ikastolaren eguna ospatuko dute ekainaren 3an. Bizikleta ibilaldia, hamaiketakoak, haur jaialdia, gurasoek prestatutako bazkari goxoa, pailasoak, dantzaldia... izango dira.

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaltzeko bulegoa

**hitza** Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**agurren tartea**

**CJ BT**

**JULIAN D TOLOSA**

Inoiz jango duzun txuletarik hoberena jan nahi baduzu, Julianera etorri, probatu eta berriro ere etorriko zara

**CJ BT**

Santa Klara kalea, 6  
 Tel.: 943 67 14 17  
 20400 Tolosa